ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

# UDALBATZARRAK 2019eko UZTAILAren 4an OSPATUTAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

2019ko uztailaren 4an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK : Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Shrabani Aranzabe Pita
Unai Sorarrain Urruzola
Jose Mª Aranzabe Urruzola

Bere ezin etorria azaltzen du: Concepcion Soria Legua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Fagus interpretazio zentroan, Udalbatzak egiteko aukeraren onespena, hala bada**
2. **Koldobika Jauregi Zinkunegi jaunak bere zinegotzi kargua hartzeko aitorpena, hala bada.**
3. **Udalbatzaren bileren maiztasuna zehaztea**
4. **Informazio-batzorde iraunkorrak sortzea eta eratzea.**
5. **Korporazioaren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetan izango dituen ordezkariak izendatzea.**
6. **Alkateak alkateordeak izendatzeko ebazpenak ematea.**

.../...

***LEHENENGO PUNTUA***

***FAGUS INTERPRETAZIO ZENTROAN, UDALBATZAK EGITEKO AUKERAREN ONESPENA, HALA BADA***

Ikusirik, Alkizako Udaletxean kokatua dagoen Udalbatza aretoan hainbat lan egin direla, honen bolumena txikituaz, Udaletxearen irisgarritasuna bermatzeko.

Ikusirik, Udalbatza bilerak publikoak direla.

Ikusirik, Udalbatza aretoan bilerak egiterakoan herritarren parte-hartzea dagoenean ez duela edukierarik.

Guzti hau kontutan izanik, proposatzen da, Udalbatza bilerak, Udaletxearen bigarren solairuan kokatua dagoen Fagus interpretazio zentroan egiteko aukera onestea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, bertaratutako batzarkideak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

BAKARRA: Udaletxearen bigarren solairuan kokatua dagoen FAGUS INTERPRETAZIO ZENTROAN, Udalbatza bilerak egiteko aukera onestea.

***BIGARRENGO PUNTUA***
***KOLDOBIKA JAUREGI ZINKUNEGI JAUNAK BERE ZINEGOTZI KARGUA HARTZEKO AITORPENA, HALA BADA***

Gaia mahai gainean uzten da Koldobika Jauregi jaunak ezin izan duelako Udalbatza honetara etorri.

***HIRUGARRENGO PUNTUA***
***UDALBATZAREN BILEREN MAIZTASUNA ZEHAZTEA.***

Ikusirik Udalbatzaren bileren maiztasuna zehaztu beharra dagoela eta bertaratuek aho batez erabakitzen dute:

Udalbatzaren bilerak hilean behin ospatuko direla, hileko azken asteartean arratsaldeko 19.30 orduetan, egun hori jai eguna denean ezik, kasu horretan laneguna den lehenengo ostegunera atzeratuko direlarik.

***LAUGARRENGO PUNTUA***
***INFORMAZIO-BATZORDE IRAUNKORRAK SORTZEA ETA ERATZEA.***

Udalbatzarrak aho batez, ondorengo batzorde iraunkorrak sortu eta eratu du:

Ogasuna eta Kontuetako batzorde berezia: Unai Sorarrain Urruzola, Jose Mari Aranzabe Urruzola eta Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.

***<u>BOSTGARRENGO PUNTUA</u>***
***KORPORAZIOAREN ESKUMENEKOAK DIREN KIDE ANITZEKO ORGANOETAN IZANGO DITUEN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.***

Udalbatzak aho batez, Korporazioaren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetan ordezkari moduan ondorengoak izendatzea erabakia du:

**<u>Tolosaldea Garatzen:</u>**
Titularra: Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez
Ordezkoa: Unai Sorarrain Urruzola.

**<u>Apatta-Erreka industrigunea:</u>**
Titularra: Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez
Ordezkoa: Unai Sorarrain Urruzola.

**<u>Tolosaldeko hiltegi komarkala:</u>**
Titularra: Concepción Soria Legua
Ordezkoa: Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.

**<u>Eskola Kontseilua:</u>**
Titularra: Shrabani Aranzabe Pita
Ordezkoa: Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.

**<u>Tolosaldeko Mankomunitatea:</u>**
Titularra: Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez
Ordezkoa: Concepcion Soria Legua.

**<u>Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea:</u>**
Titularra: Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Ordezkoa: Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.

**<u>Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea:</u>**
Titularra: Concepción Soria Legua
Ordezkoa: Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.

**<u>Haurreskola :</u>**
Titularra: Jose Maria Aranzabe Urruzola

Ordezkoa: Shrabani Aranzabe Pita.

***SEIGARRENGO PUNTUA***
***UDAL SAIL DESBERDINEN ERAKEITA ETA HAUEN ORDEZKARIEN IZENDAPENA, HALA BADA***

Udalbatzarrak aho batez, udal sail desberdinen eraketa eta sail hauek izango dituen udal ordezkarien izendapenak onestu ditu:

- ***Kultura, Kirola eta festak: Unai Sorarrain eta Srhabani Aranzabe***
- ***Hezkuntza: Concepcion Soria***
- ***Gizarte zerbitzuak, gazteria eta hirugarren adina: Gillermo Otegi***
- ***Fagus, Agenda XXI: Koldobika Jauregi***
- ***Mantenimentua: Jose Maria Aranzabe***
- ***Hirigintza, ogasuna eta pertsonala: Iñaki Irazabalbeitia***
- ***Turismoa: Iñaki Irazabalbeitia***
- ***Hezkuntza politika: Iñaki Irazabalbeitia***
- ***Komunikabideak: Jose Maria Aranzabe***

***ZAPIGARRENGO PUNTUA***
**UDAL BATZARKIDEEN ASISTENTZI DIETAK ETA BIZI ASEGURUAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ondoren goi karguen asistentzi dieta eta goi karguen bizi aseguruen gaia tratatzen da. Ondorengoa delarik proposamena:

-Asistentzi dietei buruz: -Ohiko Udalbatzarretara etortzeagatik 200 euro
-Ez-ohiko Udalbatzetara etortzeagatik 200 euro

Egun berean, ohiko udalbatza eta ez-ohiko udalbatza egingo balira, asistentzi dieta bakarra ordainduko da.

Aseguruari buruz, aipatu, zinegotzien bizi aseguruaren aurrekontu bat eskatu dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udalbatzako partaideei udal organoen bileretara etortzeagatik ondorengo dietak jasotzea onesten da:

-Ohiko Udalbatzak: 200 euro
-Ez Ohiko Udalbatzak: 200 euro

Egun berean, ohiko udalbatza eta ez-ohiko udalbatza egingo balira, asistentzi dieta bakarra ordainduko da.

BIGARREANA: Alkate eta zinegotziei bizi aseguru bat egitea onesten da.

***ZORTZIGARRENGO PUNTUA***
***ALKATEAK ALKATEORDEAK IZENDATZEKO EBAZPENAK EMATEA.***

Alkate-Lehendakariak adierazten du 92/2019 Alkate ebazpen bidez, Jose Maria Aranzabe Urruzola zinegotzi jauna Bigarren Alkateordea izendatu duela.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19.55etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*